

# HEZKUNTZA PROIEKTUA PROYECTO EDUCATIVO

JUNIO 2018 EKAINA

# SAN GABRIEL ESKOLA PUBLIKOA

HLHI

---



*Estrada Salcedillo 16  
48510 - Trapagaran (BIZKAIA)  
Tfno: 944923181*

*e-mail: [sangabrieleskola@sangabrieleskola.net](mailto:sangabrieleskola@sangabrieleskola.net)  
Web: <https://sites.google.com/site/sangabrielikastegia>*

## EDUKINAK

1. AURKEZPENA
2. PRINTZIPIOAK, BALIOAK , NORTASUN
3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNA.
4. PEDAGOGIA ETA ANTOLAMENDUA
  - 4.1 PEDAGOGI ESPARRUA:
    - ICP
    - Metodologia.
    - Ebaluazioa
    - Aniztasunari erantzuna
    - Orientabide eta tutoretza
    - Hizkuntzen tratamendua
    - Prestakuntza- berrikuntza
  - 4.2 ANTOLAMENDU ESPARRUA:
    - Funtzionamendu araudia
    - Parte hartze sistemak.
    - Bizikidetzeta.
- 5.HP aren IRAUNALDIA ETA EBALUAZIOA

## CONTENIDOS

1. PRESENTACIÓN
2. PRINCIPIOS, VALORES E IDENTIDAD
3. OBJETIVOS Y PRIORIDADES.
4. PEDAGOGÍA Y ORGANIZACIÓN
  - 4.1 ÁMBITO PEDAGÓGICO:
    - PCC
    - Metodología.
    - Evaluación
    - Tratamiento a la diversidad
      - Orientación y tutoría
      - Tratamiento de las lenguas
      - formación e innovación
  - 4.2 ÁMBITO ORGANIZATIVO:
    - Funcionamiento normativa.
    - Sistemas de participación.
    - Convivencia.
5. EVALUACIÓN Y DESARROLLO P.E.C



# 1. AURKEZPENA

Gure eskola, **Bizkaiko Trapagarango San Gabriel auzo** periferikoan kokaturik dago, eta honen izena jaso zuen jatorritik, 70 hamarkadaren bukaeratik. "GABITXU" eskolako maskota da. Inguruko auzoetako **ikasleak eskolako garraioaren** bidez bertaratzen dira.

Herriko institutu publikoa, "Burdin Ibarra", ondo-ondoan kokaturik dago.

2.017 urtean, Trapagarango biztanleria 11.938takoia izanik. **Euskaldunon kopurua % 22'16koa da**, handitu den zifra izan arren, honen erabilpena oso eskasa izaten jarraitzen du.

San Gabrielen, mugimendu kultural handia dago eta **auzoko elkarteek eskolako instalazioak erabiltzen** dituzte praktikorako. **Hezkuntza eskeintzan**, gure eskolak, bi hamabi urte bitarteko hezkuntza integrala eskeintzen du, "D" eredu bakarrean hezituz. Haur Hezkuntza nahiz lehen Hezkuntzan jarduten delarik.

**Instalazioei dagokionez**, hiru solairuz osaturiko pabeloi nagusia dauka, honen ondoan gimnasioa atxikiturik dago. **Lur sail zabal** batez inguratuta eta aurrean aparkaleku propioaz horniturik dagoelarik. **Jantoki zerbitzuan, eskolan bertan prestatzen den janaria eskeintzen da**, baita **Guraso elkarteak** kudeaturiko **eskolaz kanpoko jarduera** arrakastatsuak ere, hauek **ingelera sustatzen** oinarriturik daude.

**Klaustroa**, 19 irakaslez osaturik dago. Logopedia, aholkularitza eta PT zerbitzuak eskeiniz.



## 1. PRESENTACIÓN

Nuestra escuela, situada en el barrio Periférico de **San Gabriel en Trapagaran (vizcaya)**, da servicio a los barrios más alejados del pueblo, teniendo un porcentaje elevado de alumnos/as transportados. En frente, se sitúa el instituto público del pueblo, "Burdin Ibarra". La mascota que representa nuestro centro es "Gabitxu".

En el año 2.017 los habitantes de Trapagaran llegaron a 11.938. **El porcentaje de euskaldunes fue de % 22'1**, pero su utilización sigue siendo escasa a día de hoy. **Representa una oferta educativa** integral en línea "D" desde los 2 años hasta los 12. Infantil y Primaria.

San Gabriel, es un barrio de gran movimiento cultural, **las asociaciones utilizan las instalaciones escolares** con total normalidad.

Nuestras **instalaciones abarcan**: un pabellón principal de 3 plantas, con gimnasio adherido rodeado de **amplio terreno** y aparcamiento propio.

**Servicio de comedor**: Comida hecha en la escuela. **Extraescolares exitosas que impulsan el inglés** organizadas por el AMPA. **Claustro** formado por 19 profesionales con **Logopedia, consultoría y servicio de PT.**

## 2. PRINTZIOAK- BALIOAK -NORTASUNA

Komunitate osoaren partaidetzarekin adosturikoak. Ikus Anexo I

Gure eskola-komunitatea osatzen duten persona guztiek egunero erakusten duten konpromezu eta lankidetzarekin, San Gabriel eskolaren zeregin nagusia, gure ikasleei kalitatezko hezkuntza integrala eskeintzea da, etorkizuneko hiritar gaituak, autonomoak, kritikoak eta konprometituak eraikitzeko.

Bide hau, gure eskola bereizten dituen baloreen bitartez egingo dugu, bai sustrai handiena dutenekin, baita indartu beharrekoekin:

### 1. Euskalduna. Eleanitza, hizkuntzen tratamendu integratua.

Eskola euskalduna da gurea, **“D ereduan”** oinarritua, hauxe da, EUSKARA da gure komunikazio eta hezkuntza hizkuntza. Euskaraz irakasten ditugu arlo guztiak, eta **EUSKAL KULTURA**ren ezagutza eta harekiko begirunea ditugu jomuga gure jardunean. HNP proiektuan sartuta gaudenez, ikasleak euskalduntzean **paper aktiboa** sustatzen saiatzen gara.

### 2. Pertsonaren garapen integralaren sustatzaile: hezkuntza emozionala.

Gure ikasleen garapen osoa bilatzen duena ; hau da, adimen, gizarte, emozio, moral eta gorputzaren arlokoa, betiere, bizitzan koherentziaz eta orekaz moldatzeko beharrezkoak diren konpetentziak lor dezaten.

### 3. Plurala inklusiboa, giza duintasunaren balioa, funtzesko erreferente etiko gisa.

Pertsona guztiei irekita egongo dena eta ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena, ikasle bakoitzaren ezberdintasun pertsonalei eta kulturei zuzen erantzuten dena. Ikasle guztiak baldintza berdinekin onartuko dira, edozein bada ere bere jatorria eta bere hasierako gaitasuna. Denei lagunduko diegu dituzten gaitasunak ahal duten guztia garatzen, aukera berdintasuna eta beharrezko laguntza espezifikoa ziurtatuz.

### 4. Partehartzailea, familien ,ikasleen eta ikastetxeko antolaketa eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetzaren sustatzen duena.

Lan aktiboa baloratzen duena, dinamikoa eta eskolako gizatalde guztiekin konprometitua (ikasleak, familiak, irakasleak, langileak, instituzioak,...) eta bultzatzen eta zabaltzen jarraitu beharrekoa.

### 5. Ikaslea bera hezkuntzaren protagonista izatea, berdinen arteko lankidetzaren oinarrituta.

Eskolan erabili eta sustatuko ditugun metodologiak aktiboen protagonista ikaslea izango da. Ikaskuntzarako eskola egoera aberatsak eta dinamikoak eskeintzen dituen berrikuntza proiektuak bultzatuz eta gauzatuz: Ikasketa Kooperatiboa, proiektueka lanean, Sare Hezkuntza....

### 6. Berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena.

Giza- eskubideen eta oinarritzko askatasunen bultzatzailea dena, oinarritzko balore hauek garatuz eta defndatuz: errespetua, elkartasuna, tolerantzia, justizia, onarpena. Berdintasunaren harremanak sustatzen dituena.





## 2. PRINCIPIOS- VALORES -IDENTIDAD

Principios consensuados con toda la comunidad educativa. Ver Anexo I

Con el compromiso y la colaboración que demuestra cada día la gente que integra nuestra comunidad escolar, la principal misión de San Gabriel eskola es ofrecer a nuestros alumnos y alumnas una educación integral de calidad, que les ayude a formarse como ciudadanos y ciudadanas capaces, autónomas, críticos y comprometidas con el futuro. Y lo haremos a través de los valores por los que se distingue nuestra escuela, tanto los más arraigados como los que debemos fortalecer, y que son:

### 1. Euskaldun. Plurilingüe, tratamiento integrado de las lenguas.

Escuela Euskaldun, basada en la **línea lingüística " D"**, donde el Euskara es la lengua vehicular de enseñanza, y donde el conocimiento de la **CULTURA VASCA** se trabaja desde la cercanía y de un modo positivo. Estando dentro del proyecto de normalización lingüística HNP, se impulsa el Euskara adquiriendo el **alumnado, un papel activo** en el proceso.

### 2. Impulsora del desarrollo integral de la persona: Educación emocional.

Nuestro centro, está comprometido con el **desarrollo íntegro y personal del alumnado** ; En cuanto a capacidades, sociabilidad, emotividad, moralidad, valores y desarrollo corporal se refiere, para poder adquirir de este modo, recursos que las/es permitan adaptarse a la vida de un modo coherente y equilibrado.

### 3. Plural e inclusiva, impulsora del valor de la dignidad humana como referente ético.

Escuela abierta a todas las personas y comprometida en desarrollar las **capacidades personales del alumnado** partiendo de que todos/as somos diferentes , comprometida en dar respuesta adecuada a las diferencias culturales de los mismos. Garante a su vez, de la igualdad de oportunidades del alumnado, sea cual sea su origen o capacidad, proporcionando en caso de ser necesario, ayuda específica.

### 4. Participativa, promotora de la colaboración organizativa entre los profesionales docentes, familias y alumnado.

Escuela que valora el trabajo activo y dinámico. , promotora de impulsar el compromiso entre todos los miembros de la comunidad educativa ( alumnado, docentes, familia, trabajadores no docentes...)

### 5. El alumno/a será el protagonista del proceso educativo, basándonos en la colaboración entre iguales .

El alumnado será el protagonista de las metodologías activas que se impulsen y utilicen. Ofertará de este modo, situaciones dinámicas y enriquecedoras de cara al aprendizaje, impulsando y realizando proyectos innovadores : Aprendizaje cooperativo, trabajo en proyectos.

### 6. Comprometida con la igualdad, respeto y justicia.

Impulsora de los derechos humanos y de las libertades personales, desarrollando y defendiendo los siguientes valores: Respeto, solidaridad, tolerancia, justicia...Promotora de relaciones basadas en la igualdad de derechos.



# 3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

## PRINTZIOAK, BALIOAK ETA EZAUGARRIAK

**1. Euskalduna. Eleanitza, hizkuntzen tratamendu integratua.**



Hizkuntz  
Normalkuntza  
Proiektua

## PRINTZIO BAKOITZARI DAGOZKION HELBURUAK LEHENTASUNEZ ANTOLATURIK

**1 Hezkuntza-komunitateko kide** guztien artean euskararen erabilera sustatzea.

**2 Eskola-esparruko talde guztien komunikazio-hizkuntza** euskara izango da (jangelan, kirolean, eskolaz kanpoko jardueretan, etab).

**3 Hizkuntzen trataera bateratua indartzea:** Ingelerako hizkuntzaren esparrua sustatzea.

**2. Pertsonaren garapen integralaren sustatzaile: hezkuntza emozionala.**



**1. Gure ikasleen nortasuna garatzea** sustatzea, ikasteko, arrazoitzeko eta bere kasa erabakiak hartzeko laguntza eskainiz.

**2.** Gure ikasleak jabetu daitezela dituzten mugez eta ahalmenez, **konfiantza**, segurtasuna, baikortasuna eta adetasuna adierazita.

**3. Ikasleen garapen emozionala bultzatzea,** hazteko eta pertsona-arteko harreman positiboak eraikitzeko trebetasunak landuta.

**3. Plurala inklusiboa, giza duintasunaren balioa, funtzesko erreferente etiko gisa.**



**1. Ikasle guztien egiazko inklusioa** xede duten hezkuntza-proposamenak lehenestea..

**2. Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan hezte**a, sexuaren, arrazaren edo erlijioaren araberrako bazterketa-jokabideak ekiditeko.



# 3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

## PRINTZIOAK, BALIOAK ETA EZAUGARRIAK

## PRINTZIO BAKOITZARI DAGOZKION HELBURUAK LEHENTASUNEZ ANTOLATURIK

**PROTEKTOKA**

**4. Partehartzailea, familien, ikasleen eta ikastetxeko antolaketako eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetzaren sustatzen duena**

Sar H<sup>2</sup>zkuntza

- 1. Guztientzako lan-giro** atsegina lortzea.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztien arteko **komunikazioa** eta lankidetzaren bermatzea.
- Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea**, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.

**PROTEKTOKA**

**5. Ikaslea bera hezkuntzaren protagonista izatea, berdinen arteko lankidetzaren oinarrituta.**

Ikasketa Kooperatiboa

Sar H<sup>2</sup>zkuntza

- 1. Talde-lana** eta ideia-trukea sustatzea.
- Ikasleei laguntzea beren eguneroko zereginei autonomiaz ekiten, beren ahalmenez jabetu daitezkeen eta **autonomia pertsonala gara dezaten** bultzatuz.
- Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea**, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.

**6. Berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena.**

Ikasketa Kooperatiboa

GURE BARATZA

- 1. Tolerantziaren eta errespetuaren giroa** sortzea Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean, **gatazka elkarriketaren eta partehartze arduratsuen** bidez konpontuta.
- Ikasleen gaitasunak garatzeko** eta globaltasuna nahiz diziplina-artekotasuna **errespetatzeko metodologiak** sustatzea.





## 4. PEDAGOGIA ETA ANTOLAMENDUA

### 4.1 PEDAGOGI ESPARRUA

#### IKASTETXEKO CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)

Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP), irakasleen klaustroaren tresna nagusia da, gure Hezkuntza Proiektuaren asmoen erantzun pedagogikoa eta haur eta lehen hezkuntza arautzen duten dekretuen eduki eta ebaluazio irizpideen zehaztapena da.

Hauek dira bere atal nagusiak modu laburrean:

- **Haur eta Lehen Hezkuntzako helburu orokorrak** eta arloen eta esperientzia eremuen helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen mailakako banaketa, gure eskolara egokituak eta programazio didaktikoetan zehaztuta.

- **Irizpide metodologikoak eta hizkuntzen trataera curriculumean.** Atal honetan agertzen da gure ildo metodologikoa, ikasleen taldekatzeak, denbora eta espazioen banaketak, erabiltzen diren material eta tresnak eta arlo eta esperientzi eremuetan erabiltzen diren hizkuntzen trataera.

- **Aniztasun trataeraren irizpideak.** Bertan zehazten da hezkuntza behar espezifikoak duen ikaslearen erantzun integrala, bai hezkuntza premia berezikoena, baita gaitasun handikoena, hezkuntza sistemara berandu etorritakoarena edo egoera pertsonala naiz familiarrek erangidako ikaskuntza zailtasunak dituztenena.

**Atal honetan interbentzio goiztiarrerako protokolo bat dugu, ikasle bakoitzaren detekzioa eta beharrezko ekintza plana abian jartzea bideratzen duena. Protokolo hau Haur Hezkuntzaren kasuan, Arreta Goiztiarreko Marko-Planarekin lotzen da.**





## 4.1 PEDAGOGIA ESPARRUA

### METODOLOGIA



Gure eskolak proposatzen du hezkuntza eredu bat, non: Ikasleak afektibotasun giro askean bizi eta ikasiz, eta bere interes eta beharrak abiapuntu bezala harturik, ikaskuntz- irakaskuntz prozesu osoan protagonista aktiboa izatea sustatuko duen metodologia aintzat hartuko da.

Horretarako gure hezkuntza jardueraren pedagogia printzipio hauetan oinarrituko dago:

**METODOLOGIA AKTIBOAK, GLOBALIZATZAILEAK ETA ANIZTASUNAREN SUSTATZAILEAK**  
Haurrek haien munduko ezagupena pausuz pausu eraikitzen dute eta hori egiterakoan kanpoko ideia eta kontzeptuak aztertzen eta berriztatzen dituzte. Edozein ezagupen ulertzeko modu onena da elkarreragintzea.

Hau dela eta, **Haur Hezkuntzan proiektuak lan egiten dira**, orain dela 12 ikasturte eta bide honetatik segitzeari ekingo zaio balorazio oso positiboak behatu baitira.

**Lehen Hezkuntzan ere, proiektuak lan egiten** Natur zein Giza zientzien arloetan **aurreneko hastapenak eman dira**. Honen adierazle: **Zientzia proiektua, baratza** eta aurreko ikasmailatan jorratzen ari diren proiektuak direlarik.



Proiektuen dinamikarekin guztiz bateragarri eta gomendagarria den **Ikasketa Kooperatiboaren** metodologian formazioa jaso eta lehenengo urratsak praktikara eraman dira. Lehen Hezkuntzako hasierako ikasmailatan: partehartze ekitatiboa, elkarreragina eta aniztasunaren trataera sustatuz.

**ANIZTASUNAREN ZEIN BIZIKIDETZAREN SUSTATZAILE, SOZIALIZAZIOA ZAINTZEN,** Irakurketa metodologiko ezberdinak gauzatzen dira: **Irakurlagun, Bikoteka irakurtzen zein Irakurketa Erreza landuz** Haur zein Lehen Hezkuntzan. Heterogenotasunaren trataera integratzaile dutenak: Alde batetik aniztasuna errespetatu eta bultzatzen dutelako, eta bestetik ezberdintasun hori haurren gaitasun eta trebetasun garatzeko erabiltzen delako. **Sare Hezkuntza IKT Proiektuaren bidez** Hledutasun ereduaren 3. maila susten gabiltza talde lanaren metodologia SARERA eramanez.

## 4.1 PEDAGOGIA ESPARRUA

### EBALUAZIOA

Ebaluazioaren erabilera beti izan behar da hezkuntza hobetzeko: helburuak berriro definitzeko, praktika profesionala optimizatzeke, baita ikastetxearen antolakuntza eta kudeaketa, e.a. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak ebaluatu behar dira, erabaki hartzeak, harreman giro egokiak sortzea, baliabideak eta bere erabilera, eta ez emaitzak bakarrik.

Ebaluazioak bete behar duen funtzio nagusia formatiboa izan behar da (irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren hobekuntzari lagundu eta gidatu) sumatiboarekin elkartzuz (ikaskuntza zehatz baten lorpen neurriaren inguruan biltzen den kalifikazio moduko datuak), eta bi horien Barne ebaluazioa aztertuz.

Ebaluazioa, praktikari buruzko gogoeta-prozesu sistematiko moduan ulertzen dugu. Planteatutako helburuen arabera, ebaluazio-irizpideak finkatu behar dira. Era berean, Ikaskuntza-prozesuari buruzko eta bere emaitzei buruzko informazioa jaso eta aztertu behar dugu. Hori guztia, gure balorazioa egiteko eta ondoren azaltzen diren puntuei buruzko erabakiak hartzeko:

- 1- Ikasleen ikaskuntzaren balorazioa
- 2-Hezkuntza-eskuhartzearen balorazioa,
- 3-Ikasleen beharretara egindako egokitzapena.
- 4- Errefortzu-neurriak eta sustapen-prozesuak.



Ebaluazioak honako helburu hauek ditu:

- Ikasleen ikaskuntza-prozesua, ikaslearen beraren gaitasunen arabera eta proposatu diren helburuen norabidean garatzen ote den baloratzea.
- Ikaskuntza-prozesuan, oztopoak non sortzen diren ikustea, eta arrazoiak azaltzea, bereziki eskola-ingurunean antzematen diren horiek.
- Ikaslearen ikaskuntza-prozesua hobetzeko, beharrezkoak diren erabakiak hartzea
- Beste irakasle batzuekin batera, jarraian eta zorrozki, irakaskuntzari eta Curriculum-proposamenari buruzko gogoetak egitea, eta Curriculum-proposamena ikasleen beharretara egokitzen ote den baloratzea.
- Ikasleari eta bere familiari, ikaskuntza-egoerari buruzko informazioa ematea, eta hobetzeko bidea erraztea.

Beraz, ebaluazioak erantzun behar dio **zer ebaluatzeari, noiz ebaluatzeari, nola ebaluatzeari eta zertarako ebaluatzeari**, ebaluazioaren ondorioak zehaztu ahal izateko modu egokian.

## 4.1 PEDAGOGIA ESPARRUA



### ANIZTASUNARI ERANTZUNA

Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa (2012-16), Eusko Jaurlaritzak abian jarri zuena, UNESCOk bultzatutako hezkuntza korrontean kokatzen da eta ekintza batzuk proposatzen ditu ikasle guztien gaitasunen garapena bermatzeko, aberasgarritzat baloratuz aniztasuna eta banakako ezberdintasunak.

Heterogenotasunaren trataera integratzaile batek bi gauza eskatzen ditu: alde batetik aniztasuna errespetatu eta bultzatzea, eta bestetik ezberdintasun hori haurrengan zenbait gaitasun eta trebetasun garatzeko erabiltzea. Guzti hau haurren egoera pertsonaletik, erreferentzi sozio-kulturaletatik, eta ikaskuntzazko prozesu eta erritmo ezberdinetatik abiatuz egin behar da, emaitzak ezberdinak izango direla onartuz eta behar izanez gero, konpentsatuz.

**Geure eskolan aniztasunaren inklusibitateari ematen diogun erantzuna** eskolako eremu guztiei erreparatzeko plangintza izaten da eta eskolako proiektuetan ikasle guztien osoaren integrazioa sustatzen da.

Arlo pedagogikoan, inklusibitatearako metodologia anitzak erabiltzen ditugu, horien artean:

- Zientzia Asta Proiektua ; talde lanean burututako ekimenen bidez aurkezpenetan behar bereziak dituzten ikasleak protagonista bihurtzen dira, euren trebeziak azalaraziz.
- Irakurlagn: eskola osoak parte hartzen eta eskolatik kanpo irakurketan inolako jarraipen edo motibaziorik ez duten ikasle horien jakinmina eta ardura pizteko burututako dago besteak beste. Liburua etxera eraman eta irakurlagunari irakurri eta azaldu behar baitiotelako.
- Eskolabarneko laguntzak: PIREa duten ikasle guztiei, zein arlo konkreturen baten arazoak dituzten ikasleei LAGUNTZA ematen zaie, errefortsua beste irakasle batekin, taldean zein kanpoan burutzen dana, beharizanen arabera.
- Talde kooperatiboen bidezko inklusibitatea sustatzea.
- Interziklo tailerrek inklusibitatea sustatzeko ekimen oso eraginkorrak dira: antzerkigintza, sukaldaritza , artistikan talde lana bukaerako amankomuneko proiektua gauzatzen duelarik.

### Hurrengo puntuak aintzat hartuko dira:



- o Ikasle guztien inklusio osoa eta eskola-arrakasta bermatzea inguruko komunitatearekin, beren hezkuntza-beharrak agertu ahala hautemanda, eta horietan esku hartuta.
- o Ikasle guztientzako ikasteko eta parte hartzeko aukera eraginkorrak sortzea.
- o Gure erabaki guztiak asmo etikoaren arabera izatea.
- o Beharrezkoa bada, curriculumaren ikaslearen beharren arabera izatea bermatzea, tutoretza eta plan pertsonalizatuaren bidez, baita hartutako neurriek izaera inklusiboa izatea bermatzea ere.
- o Arreta goiztiarraren, Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren eta guztientzako irisgarritasunaren aldeko apustua egingo da.

## 4.1 PEDAGOGIA ESPARRUA

### ORIENTABIDE ETA TUTORETZA


Tutoretza moduan ulertzen dugu tutoreak garatzen dituen funtzioak (sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenean zehaztuta daudenak) bai ikasleekin banaka edo taldean, bai familiekin bilduz, baita irakasle taldea koordinatuz, guztiak, ikasle taldearen ibilbide akademiko, personal eta soziala hobetzeko asmotan kudeatzen direla. Aspektu guzti hauetan eragina izango du, eskolako Talde Dinamizatzaileak, Elkarbizitza Batzorde zein Behatokiak, pedadodikak etabar besteak beste. Era berean, Tutoretza Plana deitzen den dokumentuan garatuta daude aurrera eramaten diren dinamikak . Hurrengo **esparruak** bereizten ditugularik:

- **Taldeko tutoretza.** Iraunkorra, prebentiboa, gizartekatzailea. Gutxienez astero ordu bat, gelako kohesioa lantzeko eta behar denean, gatazkaren bat konpontzeko.
- **Banakako tutoretza.** Ikasle bakoitzaren beharren arabera.
- **Familiekin harremanak.** Harreman estua, gai akademikoak, pertsonalak eta sozialak tratatzeko.
- **Irakasle taldea.** Ebaluazio bileretan elkartzen da edo tutoreak beharrezkotzat jotzen duenean ekintza hezitzaile edo erabakiren bat hartzeko. Ikasle talde bakoitzean aritzen diren irakasleek osatzen dute.

Gure eskolan, adostutako tutoretza plana aurrera eramanez, planteamendua norbanakoen eta taldearen beharrei erantzuteko izango da, hurrengo **helburuak** azpimarratuz:

#### **Gatazkak modu dialogikoan konpontzeko metodologiak sustatzea.**

- o Ikasle batzordearen bidez eta tutoretza planaren bidez euren bizitza proiektua aurrera eramaten joatea.
- o Taldearen eta ikasgelaren arteko kohesioa sistematikoki lantzea , bertan gauzatzen baita ikaslearen gizarteratzea.
- o Ikasle berriei harrera planarekin jasotzea, eta beste ikastetxe, ziklo edo ikasketa batzuetarako trantsizioa erreztea.
- o Ikasle bakoitzaren laguntzak esparru pertsonala, akademikoa eta orientazio profesionalekoa izatea.
- o Tutoretza-jarduera funtsezkoa da hezkuntza-prozesu osoan eta ez dagokio bakarrik irakasle tutoreari, talde pedagogiko osoaren partehartzea baita.
- o Familien eta ikastetxearen arteko lankidetzaren orientazio- funtzioaren ardatz nagusietako bat izatea.





## 4.1 PEDAGOGIA ESPARRUA



### HIZKUNTZEN TRATAMENDUA

Gure testuinguruak, bai hizkuntzarena baita sozioekonomikoak, hurrin jartzen gaitu oraindik hezkuntza eleanitzetik, hau izan arren gure hezkuntza sailaren ildo estrategikoetako bat, sailak berak, gure hizkuntza ibilbideari lagunduko lioken baliabideen banaketan ez badu behintzat benetako ekitate gaiztatu, gure errealitateari begiratuz, hurrengo urteetan garatuko dugun Hizkuntza proiektuaren helburua benetako elebitasuna bermatzea izango da.

Eskola euskalduna da gurea, "D ereduan" oinarritua, beraz, EUSKARA da gure komunikazio eta hezkuntza hizkuntza. Euskaraz irakasten ditugu arlo guztiak, eta EUSKAL KULTURAREN ezagutza eta harekiko begirunea ditugu jomuga gure jardunean. HNP proiektuan sartuta ( duela bi hamarkada inguru) egotearen erabakian, pisu handia dauka, eskolan zein zonaldean Euskararen erabilera normalizatua ez egoteak. Proiektu honen bidez, Ikasleak euskalduntzean, euren paper aktiboa sustatzen saiatzen gara.

Ikastetxean ematen diren hizkuntzen irakaskuntza hurrengo oinarri hauetan egituratzen da:

1-Haur Hezkuntzan Hizkuntza MURGILTZEA aplikatzen da. Hau da, ikastetxean ematen diren etapa honetako lau mailetan bakarrik euskera eta euskeraz lantzen da.

2-Hirugarren hizkuntza ingelera da eta Haur Hezkuntzako 4 urtetik aurrera sartzen da.

3- Ingelera sustatzeko helburuarekin Eskolaz kanpoko AMPko jardueren %75a Ingelera hutsean egiten dira HHan eta LHan.

4-Hizkuntzen trataerarako Cambridge unibertsitateko "Pen Friends" egitasmoan murgildurik gaude: Idatzizko komunikazioa Europako hainbat herrialderekin elkartrukatuz.

5-Zientzia proiektua : ahozkoatasuna lantzeko helburuarekin burutzen da. Euskarazko 35 aurkezpen inguru burutzen direlarik.

### PRESTAKUNTZA-BERRIKUNTZA

Gure eskolako Formakuntza plana burutzerakoan Eskolako Esparru guztien hobekuntza sustatzeko helburuarekin zehazten da. Horretarako, ditugun proiektuen garapenerako formakuntza zein eskolako klaustroaren beharretarako formakuntza antolatzen da. Astean behin, formakuntza egitetik, astean bitan egitera pasa gara azken urte honetan, berrikuntza proiektu askotan sartuta gaudenez, eksklusiba bakar batekin ez dugu astirik izan hori aurrera eramateko.

Gure formakuntza honako gaiak jorratzen ditu:

#### Eremu pedagogikoan:

- Ikasketa kooperatiboa
- Ausarten kluba
- Sare Hezkuntza
- Zientzia Proiektua
- Aniztasunaren trataeraren inguruko formakuntza.

#### Antolakuntza eremuan:

- IKTak zein Sare Hezkuntza



## 4.2 ANTOLAKUNTZA ESPARRUA

### FUNTZIONAMENDU ETA ARAUDIA ( AJA)

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua hala ezarri duelako.

Gure araudiak eduki hauek ditu:

**Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako** egituraren definizioa. Bertan azaltzen dira aginte-organok, koordinazio didaktikorako organok eta partehartze organok.

**Zenbait arau, hezkuntza-komunitateko kide guztien** arteko begirunea eta bizikidetzat bermatzeko, eta aretoak nahiz instalazioak egoki erabiliko direla ziurtatzeko. Arau horiek demokratikoak izan behar dute; hau da, eskola-komunitateko kide guztiek hartu behar dute eskubideak errespetatzeko eta betebeharrak betetzeko konpromisoa. Aipatu behar dugu gure elkarbizitza planean oinarritzen diren neurri alternatiboen erabilera, guretzat ohikoena, **eskubide eta betebeharren dekretua aplikatzen dugu falta larriei** dagokionean.

**Ebaluazioetan erreklamazioak** egiteko araubidea. Bermatzen da helburu eta ebaluazio irizpideen publizitatea eta kalifikazioan zerikusia duten azterketa, frogak eta lanak ikusteko aukera. Ezartzen du ere erreklamatzeko prozedura.

Jantokiko araudia ere zehazten da, non azaltzen dira bertako arauak eta harrerarako irizpideak

### PARTE HARTZE SISTEMAK

Talde lana bultzatzen dugun moduan geletan, gure kulturaren baitan dago eguneroko lanaren berri jende gehienaren eskura jartzea. Beti ere, ikasleen ikaskuntzaren hobekuntzan oinarrituz, eskolako ildo estrategikoak gidatzen dute gure lana, urteko planean zehaztuta, eta Pedagogi batzordeak indraturik zikloetan zehar irakasle guztien partehartzearekin gauzatuko direnak.

Lan honek, beste batzorde espezifikotik egiten denarekin batera (HNP, ELKARBIZITZA, IKT...), osatzen du ikastetxearen proiektua. Baina lan hau ez litzateke osoa izango familien ekarpen eta partaidetzarik gabe. Guraso Elkartearen bitartez, hezkuntza proiektuak behar dituen esparru guztiak betetzen dira eta eskola komunitateak dituen kezka eta ardurei erantzuten dio. Denon eginkizuna da eskola komunitate honek, ikastetxearen eguneroko bizitzaren berri jasotzea erabiltzen ditugun hainbat komunikazio kanalei esker:

OMR, OMRko BATZORDEAK, ASANBLADAK, ESKOLA GIDA, ELAKRRIZKETAK, WEB-WASHAPA, PANELAK, POSTA ELEKTRONIKOAK...

**KLIKA EZAZU BILATZEN ARI ZAREN ATALEAN.  
HAZ CLICK EN EL APARTADO QUE BUSCAS.**



## 4.2 ANTOLAKUNTZA ESPARRUA

### BIZIKIDETZA

Gure Elkarbizitza Plana, orain urte batzuk onartua eta urteroko eguneraketekin, eskola giro on bat kudeatzeko erreferentziko markoa da eta eguneroko bizitza arautzeko erabiltzen duguna, eskubide eta betebeharren dekretura joan beharrean, falta larrietan erabiltzen duguna.

Plan honetan inguru guztiarekiko errespetua eta pertsonen arteko harremani buruz hitz egiten da, umeein zuzenean lantzen ditugun ideiak, kohesio dinamikekin eta talde lanaren bitartez, gelako arauak eta eskolakoak landuz gero familiekin konpartitzeko bide burutzen da. Errespetoa lantzeko eguneroko lanean sinisten dugu, elkar errespetatzen ikasteko estrategiak bideratuko direlarik. Bizikidetza eta elkarrekiko errespetua komunitate osoan zein auzoan ( herrian )lantzeko konpromezua hartuz. Arraza, sexu edo kultura ezberdineko komunitate partaideen arteko harremanak eta erlazioak sustatuz . Ideia honek eramaten gaitu Hezkidetzako planteamentua plan honetan txertatzera, eguneroko elkarbizitza egokia eta zintzoa uztarteko bidean.

## 5 HP IRAUNALDIA ETA EBALUAZIOA

Zuzendaritza Proiektuak edo bestela Plan Estrategikoak, lau urterako zehaztuko ditu Hezkuntza proiektuaren helburu nagusiak. Lau urteko plangintza hau ikasturte bakoitzeko Ikastetxeko Urteko Planean garatu eta memorian baloratuko da. Azken urteko memorian balorazio orokorra egin eta behar bada, Hezkuntza Proiektuaren errebisioa egingo da.

